

IRUTXULOKO

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

2016-06-09

Nork: [Nerea Lizarralde](#) -Eka 8, 2016

FESTA EDERRA OSPATU DUTE AIETEN



Otsailean botilaratu zuten sagar muztioa [Katzola](#) baserrian, eta joan den asteburuan berriro atera zuten sagardoa mahai gainera. Erronomia eta festa egin zuten larunbat arratsaldean.

Pilota partidak jokatu zituzten Miguel Gallastegi frontoian. Alde Zaharra kirol elkarteko infantil, kadete eta jubenilek parte hartu zuten. Momentu zirrararrietakoa 20 urteko Julen Chiapuso beteranoak Adur Etxezarretaren aurka jokatu zuenean iritsi zen. Chiapusok irabazi zuen, baina lehia estua izan zen (22-19).

Partida hasita zegoenean, Miguel Gallastegi pilotari ohia eta bere alaba Marian Matxain iritsi ziren frontoira. Ikusleek txalo zaparrada handi bat eskaini zieten.

Ondoren erronomia hasi zuten. Denek topa egin zuten sagardoarekin. Musikaz eta trikixaz girotu zuten festa, eta hainbat herritarrek parte hartu zuten herri kirolen probetan. Sokatiran aritu ziren asko, irudi galerian ikus daitekeen bezala. Bertan egindako sagardoa eta tortilla ere dastatu zuten.



AIETE AUZOAK

ZERGATIK
IZAN
BAGERAKIDE?

AZKENAK



NEREA LIZARRALDE